

ITSAS LAMINAK – SIRENAS – SIRÈNES PLASTIKOA,

ozeanoa eta dantza Ingurumen hezkuntza mugak gaindituz

Itsaslamiak proiektuaren barnean saio ezberdinak egin dira eta arlo ezberdinetan garatu dira. Hurrengo lerroetan ikusiko dugu saio bakoitzean egindako lana modu labur batean expikatua.

1.-Saio mistoa: ingurumen-hezitzaile batek eta koreografo batek zuzendutako saioa. Ikasleek itsas ekosistemen biodibertsitatea eta haien mehatxu nagusiak ezagutzeko aukera izango dute, eta baita dantzarekin eta gorputz-adierazpenarekin lehenengo harremana izatea ere.

Proiektuaren bigarren fasean gaude eta jadanik aurreko urtean egin ditugu pausu txiki batzuk baina oraingoan egingo dugun lehenengo gauza izango da elkarrizketa eta egonaldi bat proiektuan parte hartzen duten bi kolaboratzaile (koreografo bat eta ingurumen hezitzaile bat) eta ikasleen artean.

Aktu hau eskolan egin zen urrian eta bertan lehendabizi ingurumen hezitzaileak plastiko eta ingurumenari buruzko azalpen eta dinamika batzuk egin zituzten eta gero bigarren partan koreografoak ikasleei mugimendu simple batzuk irakatsi zien. Guzti hau ikastetxeko gorputz hezkuntzako irakaslearen laguntzaz egin zuten.

Hurrengo argazkietan ikus genitzaizke saio horretako une batzuetan ikasleek zelan parte hartu zuten.





2.- Obra eta solasaldia dantzariekin: Malandain Ballet Biarritz-en Sirenès obraren emanaldi berezia proiektuko parte-hartzaileentzat. Sirenèsek modu original eta metaforikoan planteatzen du itsasoetako plastiko kutsaduraren arazoa. Ikuskizunaren ostean, dantzariekin solasaldia egongo da artistaren ikuspegia ulertzeko eta balletaren mundua hobeto ezagutzeko.

Proiektuaren bigarren saioan Victoria Eugenia antzokira joan ginen ikasleak irakasleen laguntzaz. Bertan, Biarritz-eko Ballet-eko profesionalak Sirenes antzezlana erakutsi ziguten eta behin funtzioa bukatu zenean ikasleek aukera izan zuten antzeztu zuten persona guztiei ezagutu eta galderak egiteko. Oso esperientzia polita izan zen ikasleentzat bertan antzokia ezagutu bait zuten alde batetik eta bestetik ikastolara etorri zen koreografoa lanean ikusi bait zuten.

Ikasleak ikuskizun oso aberagarri zela esan zuten, mugimendu eta koreografiak askori txundituta utzi bait zien.

3.- Saio koreografikoa: Malandain Ballet Biarritz-eko dantzariek dinamizatua, obraren mugimendu eta sekuentzia koreografikorik esanguratsuenak landuko dira, ikasleek antzokian ikusitakoa ezagutu eta erreproduzitzen saiatzeko.

Proiektuaren hirugarren saioan, ikasleek espero zuten saioan, ikusi zuten mugimendu batzuen zailtasuna (nahiz eta beraiei iruditu oso errazak zirela) eta errepikortasuna. Saio hau ikastolan

egin zen eta ikasleak oso gustora ibili ziren ez ohizko mugimenduak egiten. Parte hartzea oso ona izan zen eta horrek ikasleak erakartuak izan zirela esan nahi du.



4.- Material didaktiko osagarria: hondakinen arazoaren gaia ikasgelan lantzeko eta curriculumean txertatzeko osagarri gisa diseinatutako zazpi jarduera didaktikoren proposamena.

Proiektuaren veste atal bat ikastolan egin dugu eta bertan jorratu ditugun aktibitateak ondorengoak izan dira.

1.- Bideoforum Bideo ikustaldia eta hausnarketa partekatua. Gaian sartzeko jarduera.

50 min

Aktibitate honetan bideo txiki bat ikusi zuten eta bideoan agertzen ziren detaile guztiekin geratu behar ziren. Behin bideoa ikusi eta gero taldetan jartzen dira ikasleak eta bideoan ikusi zituzten plastikozko gauza, tresna,... guztiak apuntatu behar zituzten.

Talde guztiak ondo ibili ziren lanean baina 10-11 gauza besterik ezz zutela ikusi esaten zuten eta hori hórrela ez zela ikusteko, berriro ere bideoa jarri genuen. Orain apuntatu zezaketen plastikozko gauza guztiak.

Lan hori egin eta gero konturatu ziren nola beraiek pentsatu edo apuntatu baina gauza gehiago zituztela. Behin lanketa hau egin ondoren plastikoak behin bakarrik erabiltzen direnak eta gehiagotan erabili daitezkeenei buruz hitzegiten aritu ginen. Hemen ere ideia polit batzuk atera ziren nahiz eta batzuk eramangarriak ez izan.

2.- Nora doaz kalean botatzen ditugun hondakinak? Kalean, hondakinak paperontzietan uzten ez badira, non amaitzen dute? Ozeanoetan amaitu daitezken plastikoaren adibidea. 30 min

Beste aktibitate hau kimika fisikoko arloarekin lotu dugu, bertan 3. Unitate didaktikoan zaborraren erlazioatutako ariketa batzuk bait daude eta lanketa bi eremuetarako posible zela ikusi bait genuen.

Ikasleek ez zuten sinesten horrenbesteko kantitaterik joan daitekeela itsasora, baina pixkat barneratu duten nahian gaude.

3.- Kanpaina bat diseinatzen Ozeanoetan plastiko bidezko kutsaduraren arazoaz kontzientziatzeko kanpaina diseinatu eta gauzatuko da. Derrigorrezko jarduera + 2 ord

Azken aktibitate hau derrigorrezkoa zen egitea eta ikastola osoak parte hartu du eta diseinatu du. Plastiko eta kartoia erabiliz (berrerabiliz) gabonetako zuhaitz bat eraiki dugu ikastolan. Honela, erakutsi dugu nola botatzeko materialarekin (kartoia eta plastikoa) oso ikusgarria den zuhaitza montatu daitekeela.

Diseinu honetarako erabili den kartoia arrautzen kaxarenak ziren eta plastikoa, dendetan ematen dituzten plastikozko poltsak. Ikasleak konturatu dira beste erabilpen bat nola ematea posible den bai kartoi eta plastikozko poltsei ere.



Beraiek pixkat pentsatzeko zer gertatzen den botatzen ditugun material eta gauza piloekin, ondo etorri da lanketa hau, eta beraiek oso gustora jardín dute ideiak eman eta diseinua egiten. Azkenean denbora izugarria eraman digu proiektua Aurrera eramatea baina oso polita eta ikusgarria geratu da. Azkenik, komentatzea elkarkidetza ere oso garrantzitsua izan dela.

Beheko argazkietan ikus dezakegu diseinatutako izeiaren argazki batzuk, non kartoia eta plastikoa nola erabili ditugun antzematen den.



Azken emaitza ikus genezake azken argazki honetan, ikasle eta guraso guztiakin izeiaren argiak piztearen unea isladatzen duelako. Momentu unkigarria denontzat eta materialak berrerabiliz gainera.

